

BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDON
NEREA YEREGUI BALDA
IGOR OTERMIN EGUIA

BERTARATU EZ DIRENAK

IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
ANDER PRADOS OTAMENDI

IDAZKARIA

Joanes Aleman Olló

Betelun, Udaletxeko udal
bilkuren gelan, 2023ko
urriaren 26an arratsaldeko
zazpi eta erdiak direnean,
ondoan aipatzen diren
zinegotziak elkartu dira,
Lorenzo Zubillaga
Goicoechea alkatea buru dela
eta egintzaren fede ematen
duen Joanes Aleman Olló
idazkariak lagundurik.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2023-09-20EKO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2023-09-20eko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Nafarroako Gobernuari txosten eskaera

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko irailaren 20an, 67/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Nafarroako Gobernuko toki administrazioko zerbitzu juridikoari txostena eskatzea Aralar Elkarteko lehendakaritza Lakuntzako udalbatzako kide baten esku utzitako ordezkari buruz.

2. Igor Otermin Eguia

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko irailaren 20an, 68/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Irailaren 23an ospatu zen "Azken uda dantza"rako bozgoragailua erabiltzeko baimena.

3. Basalan Arrospide SL

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko irailaren 20an, 69/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Basalan Arrospide Slri baimena ematea Beteluko 2. Poligonoko 233, 234, 858, 886 eta 324. lursailetan baso aprobetxamendua egiterakoan herri pista eta bideak erabili ahal izateko.

4. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko irailaren 22an, 70/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2023ko abuztuaren 30ean egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

5. Ainhoa Beraza

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko irailaren 22an, 70/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Euskara zerbitzuari urriaren 28an eskualdeko gaztetxoekin Scape rooma egiteko Beteluko udaletxeko gela batzuk erabiltzeko baimena ematea.

6. Goi Argiko jabekideak

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko urriaren 5ean, 72/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Goi-Argi jabekideei hirigintza lizentzia ematea Beteluko 2. Poligonoko 30. Lursailean dagoen Goi Argi etxean igogailua jartzeko.

3. SAN PEDRO ETA ELOSTA KALEKO SAREEN ZOLADURA- ETA BERRITZE-OBREI BURUZKO ABALA ITZULTZEKO ESKAERA

2018ko abenduaren 21ean, Beteluko Udalak eta Apezetxea Anaiak SLk kontratua sinatu zuten, ondoko obra-kontratua gauzatzeko: "San Pedro eta ipar Elostako kaleetan zoladura egin eta sareak berritzeko eta Errexil Bordako bideko zoladura egiteko", Jose Miguel Rodriguez Ezpeletak idatzitako proiektuaren arabera.

Horretarako, 2018ko abenduaren 11n, esleipendunak 10.059,15 euroko ABALA aurkeztu zuen La Caixak emana, lan horiek behar bezala egingo zirela bermatzeko.

2019ko azaroaren 30ean, obren harrera-akta sinatu zuten, Beteluko Udalak, Koldo Apezetxea Mutuberriak Construcciones Apezetxea Anaiak SLren izenean eta obren zuzendaritzak, Jose Miguel Rodriguez Ezpeletak. Berme-epa hiru urtekoa denez, 2022ko azaroaren 30ean amaitu zen.

Koldo Apezechea Mutuberriak Apezetxea Anaiak Slren izenean, 2022ko abenduaren 22an, bermea ezerezteko eta itzultzeko eskatu du.

2023ko abuztuaren 4an, obren zuzendaritzak obraren egoerari buruzko aldeko txostena eman zuen.

ERABAKI DA:

Apezetxea Anaiak SLk jarritako 10.059,15 euroko bermea ezereztea eta itzultzea.

4. FAKTURAK

ALCASENA JUANGO, JESUS MARIA	ANTENAK KONPONTZEARENA.	585,64
ASCENSORES ARGÁ, S.L.	mant. cuatrimestral	123,42
CAMPOS WALSH, VENUS MARGARITA	iraileko zakarrontzien bilketa.	123,42
CAMPOS WALSH, VENUS MARGARITA	iraileko garbiketak	2.278,83
CAMPOS WALSH, VENUS MARGARITA	abuztuko zakarrontzien bilketa.	123,42
CARRILLO RUIZ, CUSTODIA ANGELES	URAREN KONTROLA IRAILA.	90,00
CODISNA S.L	HIPOCLORITO EROSKETA.	145,20
CODISNA S.L	irialeko mantenimendua.	254,10
COMAT & VALCO	3 BANKUEN EROSKETA.	1.201,53
COMERCIAL FERVIS	sorgintxorako erosketa.	74,05
COMERCIAL FERVIS	garbiketa produktuen erosketa.	74,34
COMERCIAL FERVIS	garbiketa materiala	88,28
EZCURDIA AZCONA, ION	DESBROZE LANAK	3.386,43
GOIENER, S. COOP.	ESKOLAKO GASTUA 2023/09/01ETIK 2023/09/30ERA	638,83
GOIENER, S. COOP.	udaletxeko argia 2023/09/01etik 2023/9/30era	321,10
IBERDROLA CLIENTES SAU	ARGIZTAPEN PUBLIKOA 2023-08-31 2023-09-30	659,03
IBERDROLA COMERCIALIZADOR DE REFERENCIA	URBEROA 2023-09-03 2023-09-28	7,22
IBERDROLA COMERCIALIZADOR DE REFERENCIA	ARGIZTAPEN PUBLIKOA 2023-08-30 2023-09-28	318,03
JANARIA MARI TERE	SEILUEN EROSKETA,	14,04
LYRECO ESPAÑA, S.A.	bulego materialaren erosketa.	310,32
MADER-PLAY	parkerako iturri berria.	1.514,92
MUROPAPEL-BENTAPEA, S.L.	SORGINTXORAKO MATERIALA	375,34
OFICO	urriko honorarios.	88,91
OFICO	IRAILEKO NOMINAK.	123,23
OLANO ZABALETA, MIGUEL	HAURTZAINDEGIKO HUNTZA MOZTU	90,75

RAMON	ETA BILDU	
OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON	IKASTETXEKO LANAK	423,50
OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON	IRAILEKO DEPOSITUKO MANTENIMENDUA.	166,38
OTAMENDI ARTOLA, LORENZO	TOLOSARAKO IRAILEKO BIDAIK.	125,80
RECALDE GOLDARAZ ANGEL Y PEDRO	BANKU BATEN KONPONKETA.	203,28
RECALDE GOLDARAZ ANGEL Y PEDRO	TABERNAKO KONPONKETAK.	261,66
RECALDE GOLDARAZ ANGEL Y PEDRO	ESKOLAKO ETA FRONTOIKO KONPONKETAK.	1.431,89
RECALDE GOLDARAZ ANGEL Y PEDRO	ITURRISANTU ETA PRESAKO KONPONKETAK.	2.100,80
RODRIGUEZ EZPELETA, JOSE MIGUEL	honorarios camino Zezko y Casa Txorroa.	1.903,23
SEIKIDE KOOP. E. ASESORIA AHOLKULARITZA	IRAILEKO NOMINAK.	349,69
SERLIMPIA, SL.	PRESAKO KOMUNAN GARBIKETA.	412,61
WIKAI	IRAILEKO GASTUA.	70,10
Decathlon	Saskibalo saskia, oheko bits-hodia	49,94
Correos	Publibuzon	20,00
Venus M. Campos Walsh	Obra bukaeragatik eskolako garbiketa	272,25
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Balay	Garbigailua	486,40
ESTANGA ARRIZUBIETA, MARIA ROSARIO	sorgintxorako iraileko janari erosketa.	26,38
Elkar (kutxatik)	Nire maitea, begiratu de...	27,50
Zhongguo Market SL (kutxatik)	Anillas metal, carpeta sobre...	3,40
La Confianza	F. 7650	39,50
Estanga Arrizubieta, Maria Rosario	Garbiketa materiala	16,90

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 81.2 artikuluari jarraiki, Lehendakariak, premiazkotasunez, gai zerrendan ondorengo puntuaren inguruko akordioak sartzeko eskatu du: "Eskolako jantokiaren kudeaketa".

Premiazkotasunaren zioak ondorengoak dira: Foru Dekretu berri bat onartzeko izapideak hasi da Nafarroako Gobernua, eta urriaren 31n amaitzen den aurretiazko kontsulta publikoko epea ireki da. Epea amaitzear dagoenez premiazkoa da puntu hau sartzea.

Lehendakariak gai ordenean sartzeko akordioa berrestera ekarri eta udalbatzan diren kide guziten aldeko bozkarekin onartu da. Aldi berean, aldeko bozka hori udalbatzako legezko udalkideen gehiengo osoa da.

5. ESKOLAKO JANTOKIAREN KUDEAKETA

Beteluko Udaleko alkateak ondorengo proposamena ekarri du bozkatzera:

“Jakina denez, eskolako jangelen kudeaketan arazo ugari eta sakonak daude. Nafarroaren luze zabaletan baldintza desberdin asko ematen direnez, kasuistika askotarikoa da. Egia da, halaber, ohikoa den bezala, arazoak larriagoak direla landa-ingurunean, non arazo asko eman diren zerbitzuaren lizitazio-prozeduretan. Ondorioz, prezioa neurritz kanpo garestitu da, eta enpresei eskatu beharreko kalitate-baldintzak gehiegi malgutu dira.

Leitzako Hezkuntza Komunitateak (Udalak, Erietako Eskualdeko Eskolak eta ‘Denok Bat’ Guraso Elkarteak) ikastetxeko jangelako kudeaketaren modu merkeagoa, iraunkorragoa eta osasungarriagoa bilatzeko, hau herritik bertatik kudeatzeko asmoa azaldu zion Hezkuntza Departamentuari pasa den uztailean. Hezkuntza Departamentuak jakinarazi zigun, gaur egun, indarrean dagoen foru dekretuaren bidez, aukera hori ez zela bideragarria. Eta hala da, izan ere, 246/1991 Foru Dekretuaren 5. artikuluan hau ezartzen da:

“1. Jantoki arruntetan, janaria prestatu eta banatuko duen enpresa ikasleen guraso Elkarteak kontratatuko du, eskatutako eskaintzen artean, gutxienez hiru, abantaila gehien dituen hautatu ondoren.

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Departamentuak behar diren lokalak utziko ditu, aldizkako eta doako erabilera-lagapen erregimenean, horretarako elkartearekin hitzarmen bat izenpetuko delarik, eta bertan zehaztuko lagapenaren baldintzak.

2. Zerbitzu kontratatuko jantoki komarkaletan, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Departamentuak kontratu-hartzailea hautatuko du, Eskola-Kontseiluak egindako oharrak kontutan hartuz.”

Gure ustez, kudeaketa zuzena onartuz gero, hainbat modalitate barnebilduz, toki bakoitzera egokitutako konponbideak lortzea ahalbidetuko luke, zerbitzu ekonomikoa, osasungarria eta iraunkorragoa lortuz, tokiko ekonomia bultzatzeaz gain. Garrantzitsua da azpimarratzea erantzukizun partekatu horrek ez liekeela zama ekonomiko gehigarririk ekarriko kudeaketa hori bere gain hartu nahi duten ikastetxeei, udalei edo Guraso Elkartei.

Proposamen hori ez da berria, beste leku batzuetan hainbat kudeaketa-modalitate arautu baitituzte, eta, beraz, aukera gehiago daude, hain egoera desberdinei irtenbideak emateko. Kantabriaren kasuan, 2012ko maiatzaren 15eko ECD/37/2012 Aginduak honako hau xedatzen du:

“Artículo 5.- Gestión del servicio de comedor.

1. La gestión del servicio de comedor escolar podrá realizarse por cualquiera de las siguientes modalidades:

a) Contratación del servicio de comedor mediante el suministro y elaboración de comidas en el centro docente a cargo de una empresa del sector.

b) Contratación del servicio de comedor mediante el suministro de comidas elaboradas en cocinas centrales y transportadas al centro docente, a cargo de una empresa del sector.

c) Gestionando el Centro, directamente, el servicio por medio del personal laboral contratado al efecto por el órgano competente, adquiriendo los correspondientes suministros y utilizando sus propios medios instrumentales.

d) Concertando el servicio con los respectivos Ayuntamientos que estén interesados en ello, a cuyo efecto se formularán los oportunos convenios con la Consejería de Educación, Cultura y Deporte que podrían tener cabida dentro de marcos de cooperación más amplios, si ello fuera así acordado.

e) A través de convenios o contratos de servicio con otros establecimientos abiertos al público, Entidades o Instituciones que ofrezcan garantía suficiente de la correcta prestación del servicio.

2. Salvo en el caso de que la Consejería haya suscrito convenio con la correspondiente entidad o administración, circunstancia que daría lugar a establecer necesariamente la fórmula de gestión que en tal documento se haya concertado, preferentemente se procurará que la gestión se realice por las modalidades a) o b) del apartado anterior. Cuando por falta de ofertas o de idoneidad de la Empresa ello no sea posible, la Dirección General de Personal y Centros Docentes acordará las medidas oportunas.

3. En los supuestos de conciertos con Ayuntamientos u otras Entidades o Instituciones a que se refieren los apartados d) y e) anteriores, el personal necesario para la prestación del servicio de comedor será contratado y dependerá laboralmente del Ayuntamiento o Entidad correspondiente.”

Zorionez, oraintxe hasi dira Nafarroan 30 urte baino gehiago dituen eta eskoletako jangelak arautzen dituen Foru Dekretu berri bat onartzeko izapideak egiten, eta urriaren 31n amaitzen den aurretiazko kontsulta publikoko epea ireki da (<https://participa.navarra.es/processes/consulta-publica-previa-comedores-escolares?locale=eu>).

Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu arau berri hori gaur egungo garaietara ahalik eta hobekien egokitzen saiatzeko (gizartea eta beharrak asko aldatu dira azken 30 urteetan), eskualdeko eskoletatik, udaletatik eta guraso elkarteetatik, Gobernuaren atari irekian beharrezko ekarpenak egitea.

Leitzako Hezkuntza Komunitatetik gure ekarpena egingo dugu, eskualdeko eskoletako jangelak zuzenean eta hainbat formulen bidez kudeatu ahal izateko. Hain zuzen ere, hauxe da aurkeztuko dugun proposamena:

“Eskoletako jangelak arautzen dituen Foru Dekretu berriak hainbat kudeaketa-modalitate izatea eskatzen dugu, jantoki arruntak eta eskualdekoak bereizi gabe, Kantabriaren kasuan bezala (ECD/37/2012 Agindua), Nafarroako eskualdeko jantokiek ere hainbat kudeaketa-modalitate izan ditzaten.

Eskualdeko jantokiak ere modu zuzenean kudeatzeko aukera izatea eskatzen dugu, bai ikastetxearen bidez, bai interesa duten udalekin hitzartuz, edo zerbitzua modu egokian emateko behar adina berme eskaintzen duten beste erakunde batzuekin hitzarmenak eginez.

Kudeaketan interesa duten udalekin egindako hitzarmenen bidez egingo balitz, garrantzitsua da hauek zuzeneko kontratazioa egiteko aukera izatea zerbitzua behar bezalako bermeekin eman dezaketen establezimenduekin edo beste erakunde batzuekin”.

Hori guztia dela eta, egokia irudituz gero, zuen eskoletatik, udaletatik eta guraso elkarteetatik ekimen honen alde egiteko eskatzen dizuegu. Horretarako, ekarpen bera edo antzekoa aurkeztea eskatzen dizuegu, ikastetxe bakoitzean kudeaketa-modalitate desberdinen artean aukeratzeko aukera izan dezagun, ikastetxe bakoitzaren egoerara hobeto egokitzeko eta, hartara, kasu bakoitzerako kudeaketa-formula onena aplikatzeko.

Horretarako, goian adierazitako estekan erregistratu besterik ez duzue egin behar, eta ekarpena, minutu gutxitan bidal daiteke.

Gure ustez, hausnarketa honekin bat eginez gero, komenigarria da eskaera hainbat ikastetxeetatik, udaletatik eta guraso elkarteetatik modu bateratuan egitea, kontuan hartzeko aukera gehiago izango baititu honela.”

Lehendakariak proposamena bozkatzera ekarri eta udal bilkuran diren guztien adostasunarekin onartu da.

6. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko zortziak eta laurden direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.